Irakurketa-proba

Patriarkaren elizako herensugea

Bazen behin hiriko harresietatik gertu bizi zen herensuge bat, hiritik ateratzera ausartzen ziren guzti-guztiak jaten zituena.

Egun batez, espetxera zigortutako atzerritar batek proposamen bat egin zien epaileei:

–Aske uzten banauzue, hiria libratuko dut piztia beldurgarri horrengandik.

Epaileek, asko hausnartu ostean, proposamena onartu zuten. Orduan, atzerritarrak hauxe eskatu zien bizilagunei:

–Ekarri topatzen dituzuen beirazko edalontzi eta botila guztiak, eta egurra ere bai. Gero, utzidazue lasai lan egiten.

Handik egun batzuetara, atzerritarra hiritik atera zen, piztia akabatzeko prest.

–Brrrrr! –egin zuen herensugeak gerturatzen ari zen gizontxo hura ikusi zuenean.

Hiritarrek, harresitik, beldurrez begiratzen zioten gertatzen ari zenari: atzerritarrak gainean zeraman kapa erantzi zuen, eta kristalezko jantzi bat agertu zen, eguzkiaren izpiak islatzen zituena. Piztia itsututa zegoen, eta atzerritarrak unea aprobetxatu zuen hura akabatzeko.

Hiritar guzti-guztiak joan ziren herensuge beldurgarri harengandik libratu zituen heroia txalotzera. Eta gertaeraren oroigarri gisa, Patriarkaren elizaren sarreran zintzilikatu zuten piztia.

HERRI-KONDAIRA

1-NOIZ GERTATU ZEN?

a-Duela 100 urte baino gutxiago

b-Duela 100 urte gutxi gorabehera

d-Ez dakigu, baina oso aspaldi

2-NON JATEN ZITUEN HERENSUGEAK BERE BIKTIMAK?

a-Hiriko harresiaren gainean

b-Hiriko harresiaren barrualdean

d-Hiriko harresiaren kanpoaldean

3-NORK ESKAINI ZUEN BERE BURUA HIRIA HERENSUGEARENGANDIK LIBRATZEKO?

a-Hiritar batek

b-Zaldun atzerritar batek

d-Espetxera zigortutako atzerritar batek

4-ZER EGIN ZUEN BEIRAZ ETA EGURREZ?

a-Ispilu erraldoi bat

b-Beirazko jantzi bat

d-Oso ezkutu distiratsu bat

5-ZER GERTATU ZEN KAPA KENDU ZUENEAN

a-Herensugeak eraso egin zion

b-Herensugea itsutu egin zen

d-Herensugeak ihes egin zuen

6-NON ZINTZILIKATU ZUTEN HERENSUGEA, GERTAERAREN OROIGARRI GISA?

a-Katedralaren sarreran

b-Patriarkaren elizaren aldarean

d-Patriarkaren elizaren sarreran